



**Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko
Zergaren ekitatea lortzeko bidean
aldatu, eta beste neurri tributario
batzuk onartzen dituen Foru Arau
Proiektua.
Txosten ekonomikoa eta genero
eragina.**



Aurkibidea

1. Sarrera
2. Zergabilketan eragina duten arau aldaketen identifikazioa
3. Foru Arau Proiektuak dakartzan aldaketen eragina zergabilketan
4. Foru Arau Proiektuak dakartzan aldaketen genero eragina



1. SARRERA

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duten Gipuzkoako Foru Ogasunaren zergabilketan eta generoaren ikuspegitik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ekitatea lortzeko bidean aldatu, eta beste neurri tributario batzuk onartzen dituen Foru Arau Proiektuan aurreikusitako zerga neurriek. Neurri horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerga propioei dagozkie beti, txosten honen ondorioetarako. Kalkulatu nahi izan da zenbateraino aldatuko den zergabilketa, baldin eta gaur egun indarrean dagoen araudiaren ordeztu arau proiektu berrian jasotzen diren aldaketa nagusiak aplikatzen badira. Hortaz, txosten honen xedea ez da proiektuan sartzen diren neurriak termino absolututan ebaluatzea, haiek aztertzea eta gaur indarrean daudenekin alderatzea baizik.

Indarrean dagoen araudia eta proposatzen dena alderatuz identifikatu ahal izan dugu zer diferentzia normatibok eragiten duten modu berezian zergabilketan. Era berean, zerrenda horretatik zergabilketan *a priori* gehien eragiten dutenak aukeratu dira; aintzat hartuak izateko behar besteko oinarri ekonomiko fidagarriak eskaintzen ez dutenak, ordea, hortik kanpo utzi ditugu.

Aldaketen eragina kuantifikatzeko, banan-banan aztertu dira neurriak; gertatzen den aldea kuota likidoan konparatu dugu beti, hau da, indarrean dagoen araudiari jarraituz ateratzen den kuota dagokion aldaketa aplikatuta ateratzen denarekin konparatu da.

Txosten honek beste hiru atal ditu sarrera honekin batera. Bigarrenean, proiektuan jaso eta zergabilketan eragina duten neurri nagusiak zerrendatzen dira, betiere kalkulu fidagarriak egiteko datuak erabilita. Horretarako, indarrean dagoen idazkera eta proposatutakoa transkribatu ditugu. Hirugarren atalean, neurri bakoitzak zergabilketan izango duen eragina kuantifikatu da. Eta laugarren atalean, neurri fiskal horien generoari buruzko txostena aurkezten da.



2. ZERGABILKETAN ERAGITEN DUTEN ALDAKETEN IDENTIFIKAZIOA

<i>Foru Arau Proiektuaren eta indarrean dagoen araudiaren arteko aldeak</i>	
<i>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga</i>	
<i>10/2006 Foru Araua</i>	<i>Foru Arau Proiektua</i>
1. Etekin irregularrei muga	
	<p>21.bis artikulua. Etekin irregularren baterako muga.</p> <p>100eko 100etik beherako integrazio portzentajeak, aurreko 19.2.a), 20. eta 21. artikuluetan aipatuak, batera aplikatzeko kontuan hartuko diren etekinen zenbatekoa ezingo da izan urtean 300.000 eurokoa baino handiagoa, nahiz eta horrek ez duen kentzen aipatutako artikuluetan edo euren erregelamenduzko garapenean ezartzen diren beste mugak integrazioan aplikatzea. Zenbateko horren gaineko soberakina 100eko 100ean integratuko da.</p> <p>Jasotako etekinei 100eko 100etik beherako integrazio portzentajeak aplikagarri zaizkienean, aurreko paragrafoan aurreikusitako 300.000 euroko muga konputatzerakoan, aurrenik kontuan hartuko dira integrazio portzentajerik txikienak aplikagarri dituztenak.»</p>
Gehienezko 300.000 euroko muga ezartzen da laneko etekin irregularrei, integrazio portzentajea aplikatu ahal izateko.	
2. Langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik	
<p>95. artikulua. Kenkaria langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoen aldeko kuota eta ekarpenengatik.</p> <p>1. Zergadunek langileen sindikatuei ordaindutako kuoten %30eko kenkaria egin dezakete.</p> <p>.....</p>	<p>23. artikulua. Gastu kengarriak</p> <p>c) Langileen sindikatuei ordaindutako kuotak</p>



Langileen sindikatuei ordaindutako kuotak %30eko kenkaria izatetik, bere osotasunean laneko etekinetan gastu izatera pasatzen dira.

3. Gizarte aurreikuspeneko sistemen alde egindako ekarpen eta kontribuzioak

73. artikulua. Murrizpen mugak gizarte aurreikuspeneko sistemen aldeko ekarpen eta kontribuzioengatik.

1. Berariazko araudian jasotako muga finantzarioak eragotzi gabe, muga hauek izango dituzte gizarte aurreikuspeneko sistemen aldeko ekarpen eta kontribuzioengatik egiten diren murrizpenek:

a) Urteko 8.000 euro: partaide, mutualista eta aseguratuek aurreko artikuluan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemen alde egindako ekarpenen baturarako.

Hala ere, zergaren sortzapen egunean bazkideak, partaideak, mutualistak edo aseguratuek berrogeita hamabi urte baino gehiago baditu, aurreko muga 1.250 euro gehituko da bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek berrogeita hamabi urtetik gorako adina gainditzen duen urte bakoitzeko. Bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuen adina hirurogeita bost urtekoa edo handiago denean, 24.250 eurokoa izango da muga hori.

Ondorio horietarako, ez dira kontuan hartuko ondorengo b) letran aipatzen diren kontribuzio enpresarialak.

.....

73. artikulua. Gizarte aurreikuspeneko sistemei ekarpen eta kontribuzioak egitegatik gehienez aplika daitezkeen murrizpenak.

.....

a) Oro har, 5.000 euro urtean, aurreko 72. artikulua 1. apartatuko 1etik 8ra bitarteko zenbakietan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak eta kontribuzioak batuta.

b) Aurreko a) letran ezarritako muga 1.000 euro gehituko da bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek berrogeita hamabi urtetik gorako adina gainditzen duen urte bakoitzeko, eta bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuen adina hirurogei urtekoa edo handiago denean, 12.500 eurokoa izango da muga hori.

.....

Murrizpena duten ekarpen eta kontribuzioen mugak aldatzen dira:

- Murrizpen orokorraren muga 8.000 euro ekarpenentzat eta beste 8.000 euro kontribuzioentzat izatetik, bientzat 5.000 euroko muga bakarra izatera pasatzen da.
- 52 urte baino gehiago duten zergadunentzat gehikuntza 1.250 euro urteko izatetik (24.250 euroko mugarekin), 1.000 euro urteko (12.500 euroko mugarekin) izatera pasatzen da.



4. Murrizpena batera tributatzegatik

<p>75. artikulua. Murrizpena batera tributatzegatik.</p> <p>1. Foru arau honen 99. artikuluan xedatutakoari jarraiki batera tributatzea aukeratzen denean, oinarri ezargarri orokorra urteko 4.033 euro murriztuko da autolikidazio bakoitzeko.</p> <p>2. Aurreko apartatuan adierazitako murrizpena 3.503 eurokoa izango da, foru arau honek 100. artikulua 2. apartatuan jasotako familia unitateen kasuan.</p>	<p>75. artikulua. Murrizpena batera tributatzegatik.</p> <p>1. Foru arau honen 99. artikuluan xedatutakoari jarraiki batera tributatzea aukeratzen denean, oinarri ezargarri orokorra urteko 4.114 euro murriztuko da autolikidazio bakoitzeko.</p> <p>2. Aurreko apartatuan adierazitako murrizpena 3.574 eurokoa izango da, foru arau honek 100. artikulua 2. apartatuan jasotako familia unitateen kasuan.</p>
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

%2an igotzen da aplikatu daitekeen murrizpena

5. Oinarri orokorraren eskala

<p>77. artikulua. Oinarri likidagarri orokorraren eskala.</p> <p>.....</p> <table border="1" data-bbox="223 1299 758 1534"> <thead> <tr> <th>Oinarria</th> <th>Kuota</th> <th>Gainerako oinarria</th> <th>Tipoa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>0</td> <td>0</td> <td>14.860</td> <td>23,0%</td> </tr> <tr> <td>14.860</td> <td>3.417,80</td> <td>14.860</td> <td>28,0%</td> </tr> <tr> <td>29.720</td> <td>7.578,60</td> <td>14.860</td> <td>35,0%</td> </tr> <tr> <td>44.580</td> <td>12.779,60</td> <td>19.100</td> <td>40,0%</td> </tr> <tr> <td>63.680</td> <td>20.419,60</td> <td>hortik gora</td> <td>45,0%</td> </tr> </tbody> </table> <p>.....</p>	Oinarria	Kuota	Gainerako oinarria	Tipoa	0	0	14.860	23,0%	14.860	3.417,80	14.860	28,0%	29.720	7.578,60	14.860	35,0%	44.580	12.779,60	19.100	40,0%	63.680	20.419,60	hortik gora	45,0%	<p>77. artikulua. Oinarri likidagarri orokorraren eskala.</p> <table border="1" data-bbox="837 1299 1428 1601"> <thead> <tr> <th>Oinarria</th> <th>Kuota</th> <th>Gainerako oinarria</th> <th>Tipoa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>0</td> <td>0</td> <td>15.160</td> <td>23,0%</td> </tr> <tr> <td>15.160</td> <td>3.486,80</td> <td>15.160</td> <td>28,0%</td> </tr> <tr> <td>30.320</td> <td>7.731,60</td> <td>15.160</td> <td>35,0%</td> </tr> <tr> <td>45.480</td> <td>13.037,60</td> <td>19.490</td> <td>40,0%</td> </tr> <tr> <td>64.970</td> <td>20.833,60</td> <td>55.030</td> <td>45,0%</td> </tr> <tr> <td>120.000</td> <td>45.597,10</td> <td>55.000</td> <td>47,0%</td> </tr> <tr> <td>175.000</td> <td>71.447,10</td> <td>hortik gora</td> <td>50,0%</td> </tr> </tbody> </table> <p>.....</p>	Oinarria	Kuota	Gainerako oinarria	Tipoa	0	0	15.160	23,0%	15.160	3.486,80	15.160	28,0%	30.320	7.731,60	15.160	35,0%	45.480	13.037,60	19.490	40,0%	64.970	20.833,60	55.030	45,0%	120.000	45.597,10	55.000	47,0%	175.000	71.447,10	hortik gora	50,0%
Oinarria	Kuota	Gainerako oinarria	Tipoa																																																						
0	0	14.860	23,0%																																																						
14.860	3.417,80	14.860	28,0%																																																						
29.720	7.578,60	14.860	35,0%																																																						
44.580	12.779,60	19.100	40,0%																																																						
63.680	20.419,60	hortik gora	45,0%																																																						
Oinarria	Kuota	Gainerako oinarria	Tipoa																																																						
0	0	15.160	23,0%																																																						
15.160	3.486,80	15.160	28,0%																																																						
30.320	7.731,60	15.160	35,0%																																																						
45.480	13.037,60	19.490	40,0%																																																						
64.970	20.833,60	55.030	45,0%																																																						
120.000	45.597,10	55.000	47,0%																																																						
175.000	71.447,10	hortik gora	50,0%																																																						

Eskala %2an deflaktatzen da, eta gainera bi tarte berri ezartzen dira: 120.000 eta 175.000 euro bitarteko oinarrientzat %47a; eta %50a 175.000 eurotik gorako oinarrientzat.

6. Aurrezpenaren oinarriaren eskala

<p>78. artikulua. Aurrezpenaren oinarri likidagarriaren karga tasa.</p> <p>Aurrezpenaren oinarri likidagarriari %20ko</p>	<p>78 artikulua. Aurrezpenaren oinarri likidagarriari aplikatu beharreko karga tasa.</p> <p>Aurrezpenaren oinarri likidagarriari</p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



<p>karga tasa aplikatuko zaio</p>	<p>ondorengo eskalan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:</p> <table border="1" data-bbox="936 508 1343 770"> <thead> <tr> <th>Aurrezpenaren oinarri likidagarria (eurotan)</th> <th>Tasa aplikagarria (%)</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1.500eraino</td> <td>20</td> </tr> <tr> <td>1.500,01etik aurrera</td> <td>24</td> </tr> </tbody> </table>	Aurrezpenaren oinarri likidagarria (eurotan)	Tasa aplikagarria (%)	1.500eraino	20	1.500,01etik aurrera	24
Aurrezpenaren oinarri likidagarria (eurotan)	Tasa aplikagarria (%)						
1.500eraino	20						
1.500,01etik aurrera	24						
<p>1.500 euro gainditzen duen aurrezpenaren oinarri likidagarriaren zatia %20 ordaintzetik %24 ordaintzera pasatzen da.</p>							
<p style="text-align: center;">7. Kenkari orokorra</p>							
<p>80. artikulua. Kenkari orokorra.</p> <p>Zergadunek 1.327 euroko kenkaria egingo dute urtean. Autolikidazio bakoitzeko aplikatuko da kenkari hau</p>	<p>80. artikulua. Kenkari orokorra.</p> <p>Zergadunek 1.354 euroko kenkaria egingo dute urtean. Autolikidazio bakoitzeko aplikatuko da kenkari hau</p>						
<p>%2an igotzen da aplikatu daitekeen kenkaria</p>							
<p style="text-align: center;">8. Kenkaria ondorengo ahaideengatik</p>							
<p>81. artikulua: Kenkaria ondorengo ahaideengatik</p> <p>1. Kenkari hau egingo da zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko:</p> <p>a) 558 euro urtean, lehenengoagatik. b) 691 euro urtean, bigarrenagatik. c) 1.168 euro urtean, hirugarrenagatik. d) 1.380 euro urtean, laugarrenagatik. e) 1.804 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzarengatik.</p> <p>2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo ahaide bakoitzeko, 319 euroko kenkari osagarria egingo da urtean, aurreko apartatuan jasotakoaren arabera</p>	<p>81. artikulua: Kenkaria ondorengo ahaideengatik</p> <p>1. Kenkari hau egingo da zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko:</p> <p>a) 570 euro urtean, lehenengoagatik. b) 705 euro urtean, bigarrenagatik. c) 1.192 euro urtean, hirugarrenagatik. d) 1.408 euro urtean, laugarrenagatik. e) 1.841 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzarengatik.</p> <p>2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo ahaide bakoitzeko, 326 euroko kenkari osagarria egingo da urtean, aurreko apartatuan jasotakoaren arabera</p>						



dagokionaz gain.	dagokionaz gain.						
%2an igotzen da aplikatu daitekeen kenkaria							
9. Kenkaria aurreko ahaideengatik							
83. artikulua. Kenkaria aurreko ahaideengatik. 1. Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorrean bizi den aurreko ahaide bakoitzeko 266 euroko kenkaria egin daiteke. 	83. artikulua. Kenkaria aurreko ahaideengatik. 1. Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorrean bizi den aurreko ahaide bakoitzeko 272 euroko kenkaria egin daiteke. 						
%2an igotzen da aplikatu daitekeen kenkaria							
10. Kenkaria adinarengatik							
86. artikulua. Kenkaria adinarengatik. 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko, 319 euroko kenkaria egingo da. Zergadunak 75 urte baino gehiago baditu, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 584 eurokoa izango da.	86. artikulua. Kenkaria adinarengatik. 1. Oinarri ezargarria 24.000 eurokoa edo txikiagoa duen zergadun bakoitzeko, adinaren kenkaria aplikatuko da jarraian adierazten denaren arabera: <table border="1" style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <thead> <tr> <th style="text-align: center;">Adina (behe muga)</th> <th style="text-align: center;">Kenkaria Euroak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="text-align: center;">65</td> <td style="text-align: center;">324</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">75</td> <td style="text-align: center;">594</td> </tr> </tbody> </table> 2. Oinarri ezargarria 24.000 eurokoa baino handiagoa eta 30.000 eurokoa baino txikiagoa duten 65 urtetik gorako zergadunek 324 euroko kenkaria izango dute, ken eragiketa honen emaitza: oinarri ezargarria 24.000 euro murriztu ondoren ateratzen den zenbatekoa bider 0,054.	Adina (behe muga)	Kenkaria Euroak	65	324	75	594
Adina (behe muga)	Kenkaria Euroak						
65	324						
75	594						



	<p>3. Oinarri ezargarria 24.000 eurokoa baino handiagoa eta 30.000 eurokoa baino txikiagoa duten 75 urtetik gorako zergadunek 594 euroko kenkaria izango dute, ken eragiketa honen emaitza: oinarri ezargarria 24.000 euro murriztu ondoren ateratzen den zenbatekoa bider 0,099.</p> <p>4. Artikulu honen ondorioetarako, oinarri ezagarriztat hartuko da foru arau honen 67. eta 68. artikuluetan aipatzen diren oinarri ezargarri orokorra eta aurrezpenaren oinarri ezargarria batzetik ateratzen den zenbatekoa. Oinarri ezargarri orokorrak saldo negatiboa ematen duenean, zero konputatuko da aipatutako baturaren ondorioetarako.</p>
--	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Bi aldaketa sartzen dira:

- 1. Alde batetik, aplika daitezkeen kenkariaren zenbatekoa kaldatzen dira: 319 eurotik 324 eurora; eta 584 eurotik 594 eurora.**
- 2. Bestalde, ezabatu egiten da kenkaria 30.000 euro baino handiagoko oinarri ezargarria duten zergadunentzat; eta mugatu egiten da 24.000 eta 30.000 euro bitarteko oinarri ezargarria dutenentzat..**

11. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik

<p>90. artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik.</p> <p>1. Zergadunek ohiko etxebizitza erostean zergaldian inbertitutako kopuruen %18ko kenkaria egin dezakete, barne hartuta beren kargura joan diren erosketa gastuak.</p> <p>Era berean, zergaldian ordaindutako interesen %18ko kenkaria egin dezakete, ohiko etxebizitza erosteko besteren kapitalak erabiltzeagatik, zergadunen kargura joan diren besteren finantzaketak sortutako gastuak barne.</p> <p>2. Urtean gehienez 2.160 euroko kenkaria egin daiteke, aurreko 1. apartatuan aipatzen diren</p>	<p>90. artikulua. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik.</p> <p>1. Zergadunek %15eko kenkaria aplikatu dezakete ohiko etxebizitza erostean zergaldian inbertitutako kopuruengatik, beren kargura izan diren erosketa gastuak barne.</p> <p>Orobat, %15eko kenkaria aplika dezakete ohiko etxebizitza erosteko besteren kapitalak erabilia zergaldian ordaindutako interesengatik, zergadunen kargura joan diren besteren finantzaketak sortutako gastuak barne.</p> <p>2. Aurreko 1. apartatuan aipatzen diren kontzeptuak batuta, gehienez ere 1.500 euroko</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



<p>kontzeptuen baturarengatik.</p> <p>3. Zergadun bakoitzeko aurreko 1. apartatuan aipatzen diren kontzeptuengatik egindako kenkarien zenbatekoen batura ez da 36.000 euroko zifratik gorakoa izango, zergaldi jarraituen denbora osoan. Zifra horri gutxituko zaio, hala badagokio, foru arau honen 51. artikuluan jasotakoaren arabera berrinbertsioagatik salbuetsita dagoen ondare irabaziaren zenbatekoari %18 aplikatuz ateratako emaitza.</p> <p>4. Zergaduna 35 urtetik beherakoa bada edo familia ugariaren titularra bada, berezitasun hauek aplikatuko dira:</p> <p>a.- Aurreko 1. apartatuan jasotako portzentajeak %23koak izango dira, salbu artikuluko honen 5. apartatuko b) letran aipatzen diren kasuetan.</p> <p>b.- Aurreko 2. apartatuan aipatzen den urteko gehieneko kenkaria 2.760 eurokoa izango da, salbu artikuluko honen 5. apartatuko b) letran aipatzen diren kasuetan.</p> <p>Batera tributatzea aukeratzen bada eta kenkari horretarako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 35 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, apartatu honetan ezarritako portzentajeak eta muga aplikatuko dira.</p>	<p>kenkaria egin ahal izango da urtean.</p> <p>3. Zergadun bakoitzak aurreko 1. apartatuan aipatzen diren kontzeptuengatik zergaldi jarraituetan egindako kenkarien baturak ezin du 30.000 euroko zifra gainditu. Zifra hori, dena den, gutxitua izango da, hala badagokio, berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare irabaziaren zenbatekoari %15 aplikatu ondoren ateratzen den emaitzarekin.</p> <p>4. Zergadunak 35 urte baino gutxiago baditu edo familia ugariaren titularra bada, berezitasun hauek aplikatuko dira:</p> <p>a) Aurreko 1. apartatuan ezarritako portzentajeak %20koak izango dira, artikuluko honen 5. apartatuko b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.</p> <p>b) Aurreko 2. apartatuan aipatzen den urteko gehieneko kenkaria 2.000 eurokoa izango da, artikuluko honen 5. apartatuko b) letran aipatzen diren kasuetan izan ezik.</p> <p>Batera tributatzea aukeratzen bada eta kenkari horretarako eskubidea dutenak pertsona bat baino gehiago badira, batzuk 35 urtetik beherakoak eta beste batzuk adin horretatik gorakoak, apartatu honetan ezarritako portzentajeak eta muga aplikatuko dira.</p>
	<p>Hirugarren xedapen iragankorra.. Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik edo hura erosteagatik 2012ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko zergaldietan egindako kenkariak.</p> <p>Foru arau honen hogeita bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa eragotzi gabe, foru arau honen 90.4 artikuluan ezarritakoaren arabera 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzekoa den 30.000 euroko mugari honako zenbatekoak ere gutxituko zaizkio:</p>



	<p>- Abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, aipatzen zuen ohiko etxebizitzaren inbertsio kontzeptuagatik zergadunak kendutako zenbatekoak.</p> <p>- Foru arau honen 90. artikuluan aipatzen den ohiko etxebizitzaren erosketak kontzeptuagatik, 2012ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko idazkerari jarraiki, zergadunak kendu dituen zenbatekoak.</p> <p>- Hala badagokio, berrinbertsioagatik salbuetsitako ondare irabaziari %15 edo %18ko portzentajea, kasuan kasu, aplikatuzetik ateratzen den zenbatekoa.</p>
<p>2011ko abenduaren 31a baino beranduago egindako erosketentzat honako aldaketak sartzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kenkari orokorraren portzentajea %18tik %15era pasatzen da; eta bere gehienezko muga 2.160 eurotik 1.500 eurora. • 35 urtetik beherakoentzat eta famili ugariarentzat kenkariaren portzentajea %23tik %20ra pasatzen da; eta bere gehienezko muga 2.760 eurotik 2.000 eurora. • Zergadun bakoitzak izango gehienezko kreditu fiskala 36.000 eurotik 30.000 eurora pasatzen da. 	
<p>Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga</p>	
<p>1/1990 Foru Araua</p>	<p>Foru Arau Proiektua</p>
<p>1. Oinarri likidagarria eta kuota osoa</p>	
<p>19. artikulua. Oinarri likidagarria.</p> <p>1. Euskal Autonomia Erkidegoak, foru aldundiek edo Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko lurralde historikoetako udal entitateek jaulkitako edozein motatako zorpetzea herentziaz edo legatuz eskuratzeak %90eko murrizpena izango du oinarri ezargarrian baldin eta zorpetze hori gauzatzen duten aktiboak gutxienez urtebetez egon badira kausatzailearen ondarean zergaren sortzapen egunaren aurreko lehen urtean.</p> <p>Gutxienez aktiboaren %90 aurreko paragrafoan aipatutako baloreetan duten</p>	<p>19. artikulua. Oinarri likidagarria.</p> <p>1. Gertatzen bada eskualdaketa egin aurreko bi urteetan eskuratzailerak eskualdatzailearekin batera bizi izan dela eta etxebizitzaren jabari osoa, usufuktua, jabetza soila edo lurrazal eskubidea kosturik gabe eskuratzen dela "inter vivos" edo "mortis causa", eskurapenak 100eko 95eko murrizpena izango du zergaren oinarri ezargarrian, 220.000 euroko mugarekin.</p> <p>Elkarrekin bizi izanaren beharkizuna frogatzeko, erroldatze agiria eta epe horretan elkarrekin etenik gabe bizi izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dira, betiere zuzenbidean</p>



inbertsio kolektiboko erakundeen titulu edo partaidetzen herentziaz edo legatuz egindako eskurapenek kenkari portzentaje berdina izango dute beti ere kausatzailearen ondarean egoteari buruz adierazi den epea betetzen bada.

urreko paragrafoan aipatutako inbertsioei dagokienez, inbertsio bolumenaren beharkizuna betetzat hartuko da %90eko portzentajea zerga sortu aurreko lehen 365 egunetatik gutxienez 300 egunetan mantentzen bada.

2. Gertatzen bada eskualdaketa egin aurreko bi urteetan eskuratzailerak eskualdatzailearekin batera bizi izan dela eta etxebizitzaren jabari osoa, usufruktua, jabetza soilak edo lurrazal eskubidea ordain truke eskuratzen dela «inter vivos» edo «mortis causa», eskurapenak 100eko 95eko murrizpena izango du zergaren oinarri ezargarrian, 207.112 euroko mugarekin.

Elkarrekin bizi izanaren beharkizuna frogatzeko, erroldatze agiria eta epe horretan elkarrekin etenik gabe bizi izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dira, betiere zuzenbidean onartutako beste frogabide bat erabiltzea eragotzi gabe.

3. Aurreko apartatuetan xedatutakoaren kaltetan gabe, «mortis causa» eskurapenetan oinarri likidagarria lortzeko, 20. artikuluko 1. zenbakian jasotako ahaidetasun mailen arabera dagokion murrizpena egingo da oinarri ezargarrian. Guztira 16.150 euro murriztuko da I. taldeko ahaidetasun mailetan eta 8.075 euro, aldiz, II. taldekoetan.

Minusbaliotasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa duten pertsonak eta, mendekotasun egoeran daudenek egindako eskurapenetan 76.962 euro murriztuko da oinarria, kausatzailearekiko ahaidetasun mailaren arabera bidezkoa izan litekeen murrizpena eragotzi gabe.

onartutako beste frogabide bat erabiltzea eragotzi gabe.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren kaltetan gabe, "mortis causa" eskurapenetan oinarri likidagarria kalkulatu da oinarri ezargarriari 20. artikuluko 1. zenbakian jasotako ahaidetasun mailak kontuan hartuta dagokion murrizpena aplikatuta. Hau izango da murrizpena:

- a) 220.000 euro, I. taldean sartutakoentzat.
- b) 16.150 euro, II. taldean sartutakoentzat.
- c) 8.075 euro, III. taldean sartutakoentzat.

Minusbaliotasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa duten pertsonak eta mendetasun egoeran daudenek egindako eskurapenetan 80.000 euroko murrizpena aplikatuko da, kausatzailearekiko ahaidetasun mailagatik bidezkoak izan litekeenak eragotzi gabe.

Ondorio horietarako, ulertuko da pertsona minusbaliatuek edo mendetasun egoeran daudenek murrizpenerako eskubidea dutela, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan kenkaria aplikatzeko eskubidea zerga horren araudiaren arabera baliatzen dutenean.

3. Dohaintzaz edo antzeko titulu bidez egindako eskurapenetan, oinarri ezargarriari artikuluko honen 1. apartatuan adierazitako zenbatekoa murriztuko zaio, hala badagokio.

4. Bizitza aseguruak direla-eta jasotako kopuruen eskurapenetan, oinarri likidagarria lortzeko honako murrizpenak aplikatuko dira oinarri ezargarrian:

- A) Kontratatzailearen edo aseguru hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasunaren arabera:
 - a) 220.000 euro, I. taldean sartutakoentzat.
 - b) 16.150 euroko murrizpena, bai eta gainerako



Ondorio horietarako, ulertuko da pertsona minusbaliatuek edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak murrizpenerako eskubidea dutela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kenkarirako eskubidea zerga horren arauen arabera sortzen dutenean.

4. Dohaintzaz edo horren pareko moduan egindako eskurapenetan oinarri likidagarria eta oinarri ezargarria bat etorriko dira.

5. Bizitza aseguruak direla-eta jasotako kopuruaren eskurapenetan, oinarri likidagarria lortzeko honako murrizpenak aplikatuko dira oinarri ezargarrian:

Bat. Kontratatzailearen edo aseguru hartzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasunaren arabera:

a) 16.150 euroko murrizpena, bai eta gainerako kopuruaren %25ekoa ere, I. taldeko ahaidetasun maila denean.

b) 8.075 euroko murrizpena, II. taldeko ahaidetasun maila denean.

Aseguru kolektiboetan edo enpresek beren enplegatuen alde kontratatutako aseguruetan, aurreko murrizpenak aseguratuaren eta onuradunaren arteko ahaidetasunaren arabera aplikatuko dira.

Murrizpen horretaz gozatu ahal izateko, polizan aurreikusitako ezbeharrak gertatu baino gutxienez bi urte lehenago hitzartua behar du izan aseguruak, hura modu kolektiboan hitzartu ez bada behintzat.

Bi. Jasotako kopuruak terrorismo ekintzak nahiz nazioarteko giza edo bake laguntzako misio publikoetan emandako zerbitzuak direla medio hitzartu diren bizitza aseguruaren ondorio direnean, %100eko murrizpena egingo da.

6. Baldin eta hildakoaren hirugarren mailarainoko zeharkako ahaideek "mortis

kopuruaren %25ekoa ere, II. taldeko ahaidetasun maila denean.

c) 8.075 euroko murrizpena, III. taldeko ahaidetasun maila denean.

Aseguru kolektiboetan edo enpresek beren enplegatuen alde kontratatutako aseguruetan, aurreko murrizpenak aseguratuaren eta onuradunaren arteko ahaidetasunaren arabera aplikatuko dira.

Murrizpen horretaz gozatu ahal izateko, polizan aurreikusitako ezbeharrak gertatu baino gutxienez bi urte lehenago hitzartua behar du izan aseguruak, hura modu kolektiboan hitzartu ez bada behintzat.

B) %100eko murrizpena egingo da, jasotako kopuruak terrorismo ekintzak nahiz nazioarteko giza edo bake laguntzako misio publikoetan emandako zerbitzuak direla medio hitzartu diren bizitza aseguruaren ondorio direnean.

5. Baldin eta hildakoaren ezkontideak edo, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotakoaren arabera osatutako izatezko bikoteak direnean, izatezko bikote kideak, aurreko ahaideek edo adoptatzaileek, ondorengoek edo adoptatuek edo hirugarren mailarainoko zeharkako ahaideek mortis causa eskuratzen badute enpresa indibidual bat, negozio profesional bat edo Ondarearen gaineko Zergarenaren ...(e)ko .../.....Foru Arauak 4. artikulua hamar apartatuko 2. zenbakian araututako salbuespena aplikagarria zaien entitateetako partaidetzak edo horien gaineko usufuktu eskubideak, eskurapen horiek %95eko murrizpen bat izango dute zergaren oinarri ezargarrian, betiere eskuratutakoari kausatzailea hil ondorengo 10 urteetan eusten badiote, salbu epe horretan eskuratzailea hiltzen denean.

Aurreko paragrafoan aipatutako eskurapenari eusteko baldintza betetzen ez bada, murrizpenaren ondorioz ordaindu ez den



causa" eskuratzen badute enpresa indibidual bat, negozio profesional bat edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 14/1991 Foru Arauak 4. artikulua hamaikak apartatuko 2 zenbakian araututako salbuespena aplikaziozkoa zaien entitateetako partaidetzak edo horien gaineko usufruktu eskubideak, eta ondorengo ahaiderik edo adoptaturik ez badago, 100eko 95eko murrizpena izango dute zergaren oinarri ezargarrian eskuratutakoari kausatzailea hil ondorengo 10 urteetan eusten badiote, epe horretan eskuratzailea hiltzen denean izan ezik.

Aurreko paragrafoan aipatutako eskurapenari eusteko baldintza betetzen ez bada, murrizpenaren ondorioz ordaindu ez den zergaren zatia eta berandutza interesak ordaindu beharko dira

20. artikulua. Likidazio arauak.

1. Heriotza dela-eta nahiz dohaintzaz edo pareko tituluaren batez egindako eskurapenak kausatzaile edo emailearen eta kausadun edo hartzailearen artean dagoen ahaidetasun edo harreman mailaren arabera ordainduko dira, ondoko taldeekin bat etorriz:

a) I. taldea: odolkidetasun bidezko bigarren eta hirugarren mailako zeharkako ahaideek, ezkontza bidezko aurreko eta ondorengo ahaideek egiten dituzten eskurapenak, bai eta maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko bikotea dela medio horrelako ahaide direnek egindakoak ere.

b) II. taldea: laugarren mailako zeharkako ahaideek, ezkontza bidezko bigarren eta hirugarren mailako zeharkako ahaideek - maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotako izatezko bikoteak direla medio ahaide direnak barne-, maila urrunagokoen eta arrotzek egiten dituzten eskurapenak.

zergaren zatia eta berandutza interesak ordaindu beharko dira

20. artikulua. Likidazio erregelak.

1. Heriotza dela-eta nahiz dohaintzaz edo titulu parekagarri batez egindako eskurapenak kausatzaile edo dohaintza emailearen eta kausadun edo dohaintza hartzailearen artean dagoen ahaidetasun edo harreman mailaren arabera tributatu dute, talde hauen arabera:

a) I. taldea: Ondorengo ahaideek edo adoptatuek, ezkontideak edo, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotakoaren arabera osatutako izatezko bikoteak direnean, izatezko bikote kideak, aurreko ahaideek edo adoptatzaileek.

b) II. taldea: odolkidetasun bidezko bigarren eta hirugarren mailako zeharkako ahaideek eta ezkontza bidezko aurreko eta ondorengo ahaide direnek, bai eta maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera izatezko bikote bat osatzearen ondorioz halakotzat hartzen direnek, egiten dituzten eskurapenak.

c) III. taldea: laugarren mailako zeharkako ahaideek, ezkontza bidezko bigarren eta



<p>.....</p>	<p>hirugarren mailako zeharkako ahaide direnek, bai eta maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera izatezko bikote osatzearen ondorioz halakotzat hartzen direnek, maila urrunagokoek eta arrotzek egiten dituzten eskurapenak.</p> <p>Kausadunak ezezagunak badira, arrotzen arteko oinordetzari dagokion tarifaren arabera egingo da likidazioa, behin haiek nortzuk diren ezagutuz gero bidezkoa den itzulketa eragotzi gabe.</p> <p>.....</p> <p>21. artikulua. Kuota osoa.</p> <p>Zergaren kuota osoa lortzeko, aurreko artikuluan jasotakoari jarraituz kalkulaturako oinarri likidagarriari honako tasa edo tarifa hauek aplikatuko zaizkio, foru arau honek 20. artikulua 1. zerbakian jasotako ahaidetasun mailen taldeen arabera:</p> <p>a) I. taldea: %1,5eko zerga tasa aplikatuko da.</p> <p>.....</p>
<p style="text-align: center;">Ezartzen diren aldaketa esanguratsuenak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Salbuespenak ezabatzen dira eskualdaketa hauentzat aurreko ahaideei, ondorengo ahaideei eta ezkontideei egiten zaienean: kosturik gabeko "inter vivos", "mortis causa" eta aseguruak. Hemendik aurrera %1,5eko tasa finko batean tributatuko dute, 220.000 euroko murrizpenarekin zergadun bakoitzarentzat (bakarra dena aurrerantzeko eskualdaketentzat ere).• Partekatutako etxebizitzaren eskualdaketaren murrizpenaren muga 207.112 eurotik 220.000 eurora pasatzen da.• Euskal zor publikoak duen %90eko murrizpena ezabatzen da.	



3. FORU ARAU PROIEKTUAK DAKARTZAN ALDAKETEN ERAGINA ZERGABILKETAN

3.1. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

Kalkuluak egiteko oinarri gisa erabilitako datu basea 2009ko ekitaldikoa da (2010ean egindako aitorpena). Foru Arau Proiektuan jasotako neurriek 2013an aurkeztuko diren 2012ko ekitaldiko aitorpenetan izango dute eragina. Beraz, datuak urte horretara proiektatu ondorengo kontuan izanda:

a) Laneko etekinak

- 2009 - 2010 bere benetako hazkundera: -%0,9
- 2010 - 2011 aurreikuspena: +%2,4
- 2011 - 2012 aurreikuspena: +%3,0

Guztira proiektatu den hazkundera +%4,5 izan da.

b) Aurrezpenaren oinarria

- 2009 - 2010 bere benetako hazkundera: -%24,5
- 2010 - 2011 aurreikuspena: -%7,4
- 2011 - 2012 aurreikuspena: +%3,6

Guztira proiektatu den hazkundera -%27,6 izan da.

Kalkuluaren metodologia funtsean da simulazio sistema bat zergadunek jarritako datu basearen gainean aplikatzea. Mikrosimulazioko metodo orokorra erabili ezin den neurrietarako, zerga izaerako estatistiketatik abiatuta egiten dira estimazioak.

Kalkuluaren metodologia funtsean da simulazio sistema bat zergadunek jarritako datu basearen gainean aplikatzea. Mikrosimulazioko metodo orokorra erabili ezin den neurrietarako, zerga izaerako estatistiketatik abiatuta egiten dira estimazioak.

3.1.1. Etekin irregularrei muga

- Efectua duen aitorpen kopurua: 30
- Zerga-bilketan eragina: (+) 2.704.758 euro

3.1.2. Langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik

- Efectua duen aitorpen kopurua: 62.000
- Zerga-bilketan eragina: (-) 117.917 euro



3.1.3. Gizarte aurreikuspeneko sistemen alde egindako ekarpen eta kontribuzioak(*)

- Efektua duen aitorten kopurua: 26.000
- Zerga-bilketan eragina: (+) 35.798.409 euro

(*) Kasu honetan, ez dugu ahaztu behar honen benetako eragina finantzarioa izaten dela zati handi batean; hau da, zergabilketan irabazten edo galtzen dena, etorkizuneko aitortenetan galdu edo irabazten dela.

3.1.4. Murrizpena batera tributatzeagatik

- Efektua duen aitorten kopurua : 80.000
- Zerga-bilketan eragina: (-) 1.351.190 euro

3.1.5. Oinarri orokorraren eskala

3.1.5.1. Deflaktazioa

- Efektua duen aitorten kopurua: 400.000
- Zerga-bilketan eragina: (-) 8.313.155 euro

3.1.5.2. Bi tarte berri

- Efektua duen aitorten kopurua: 1.100
- Zerga-bilketan eragina: (+) 3.549.399 euro

3.1.6. Aurrezpenaren oinarriaren eskala

- Efektua duen aitorten kopurua: 85.000
- Zerga-bilketan eragina: (+) 20.893.666 euro

3.1.7. Kenkari orokorra

- Efektua duen aitorten kopurua : 400.000
- Zerga-bilketan eragina: (-) 7.855.608 euro

3.1.8. Kenkaria ondorengo ahaideengatik

- Efektua duen aitorten kopurua: 140.000
- Zerga-bilketan eragina: (-) 1.573.043 euro



3.1.9. Kenkaria aurreko ahaideengatik

- Efektua duen aitorten kopurua: 3.500
- Zerga-bilketan eragina: (-) 11.105 euro

3.1.10. Kenkaria adinarengatik

3.1.10.1. Deflaktazioa

- Efektua duen aitorten kopurua: 75.000
- Zerga-bilketan eragina: (-) 490.300 euro

3.1.10.2. Kenkari berria

- Efektua duen aitorten kopurua: 23.000
- Zerga-bilketan eragina: (+) 8.589.935. euro

3.1.11. Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik (*)

- Efektua duen aitorten kopurua: 11.000
- Zerga-bilketan eragina: (+) 2.159.232 euro

(*) 2012. ekitaldian neurri honek erosketa berrietan bakarrik du eragina. Baina etorkizunean gero eta aitorten gehiagotan izango du eragina; erosketa berriek araudi berria aplikatuko dute.

Aztertutako neurrien eragin osoa zerga-bilketan 54.241.388 euro dira. Dena den, neurri guztien zenbatekoen batuketa ez dator bat eragin oso horrekin; izan ere, batzutan elkarren artean eraginak konpentsatu egiten direlako, eta bestalde, PFEZren progresibitatea dela-eta. Horrela, neurriak metatu egiten direlako eta kuota likidoak negatiboa ezin duelako izan, neurrien eragin osoa bakoitzaren batuketa baino 348.217 euro handiagoa da.

Aztertutako neurrien artean bi motatakoak bereizi ditzakegu: deflaktazioa eta zergaren ekitatea lortzeko bidean hartzen diren neurriak.

A) Deflaktazioa

Bere bidez inflazioaren (prezioen igoera) efektua zuzentzen da, zerga elementu jakin batzuen zenbatekoetan. Helburua da zergadunek ez dezaten zerga gehiago ordaindu beren errenta nominalen igoera soilagatik.



Errenta Zerga bezalako zerga progresiboa batean, inflazioak zera eragiten du: zergadunek ordaintzen duten gehiagoko hori bat ez etortzea beraien ordaintzeko ahalmenaren hazkunde errearekin. Zergadunen errenten hazkunde erabat nominalak eragiten du horiek tarifaren goragoko tarteetara pasatzea, tasa marjinal handiagoak aplikatuz, eta, beraz, zerga gehiago ordainduz.

Deflaktazioaren bidez zera lortu nahi da: Zerga-administrazioaren zerga-bilketa doitzea ordaintzeko ahalmenaren zati errealera, prezioen igoeraren diru-efektua ezabatuz.

Deflaktazioaren zerga-bilketa eragina negatiboa (zerga-bilketa gutxiagoa) da, eta 19.594.401 eurokoa da.

B) Zergaren ekitatea lortzeko bidean hartzen diren neurriak

Zergaren ekitatea lortzeko bidean hartzen diren beste neurri guztien eragina positiboa da (zerga-bilketa handiagoa) eta 73.487.572 eurokoa da.

Zerga neurrien eragina

(+) zerga-bilketa igo / (-) zerga-bilketa jaitsi

	Aitorpen kopurua	Zenbatekoa eurotan
Deflaktazioa		-19.594.401
- Murrizpena batera tributatzeagatik	80.000	-1.351.190
- Tarifa orokorra	400.000	-8.313.155
- Kenkari orokorra	400.000	-7.855.608
- Kenkaria ondorengo ahaideengatik	140.000	-1.573.043
- Kenkaria aurreko ahaideengatik	3.500	-11.105
- Kenkaria adinarenegatik	75.000	-490.300
Zergaren ekitatea lortzeko bidean hartzen diren neurriak		73.487.572
Etekin irregularrei muga	30	2.704.758
Langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik	62.000	-117.917
Bi tarte berri eskala orokorrean	1.100	3.459.399
Aurrezpenaren oinarriaren eskala	85.000	20.893.666
Gizarte aurreikuspeneko sistemen alde egindako ekarpen eta kontribuzioak	22.000	35.798.409
- Kenkaria adinarenegatik	23.000	8.589.935
Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik	11.000	2.159.323
GUZTIRA		54.241.388



Aldi berean, zergabilketaren eragin osoa oinarri ezargarriaren tarteen arabera banatzen badugu, ondoko emaitza lortzen dugu:

Oinarri ezargarría (eurotan)	Aitorpen kopurua		Ordaintzeko kuota (eurotan)					
			Jatorrizko kuota	Kuota berria	Diferentzia		Diferentzia aitorpeneko	Diferentzia %
hasta 10.000	79.076	19,7	6.203.911	6.107.866	-96.046	-0,2	-1	-1,5
10.000 20.000	111.383	27,8	127.946.419	127.462.315	-484.105	-0,9	-4	-0,4
20.000 30.000	99.200	24,7	298.833.813	303.170.556	4.336.743	8,0	44	1,5
30.000 40.000	58.713	14,6	318.767.579	326.243.308	7.475.729	13,8	127	2,3
40.000 50.000	25.132	6,3	204.472.774	210.164.355	5.691.581	10,5	226	2,8
50.000 60.000	10.193	2,5	113.241.373	118.117.823	4.876.450	9,0	478	4,3
60.000 70.000	5.895	1,5	85.709.487	89.857.820	4.148.333	7,6	704	4,8
70.000 100.000	7.157	1,8	145.594.590	153.156.388	7.561.798	13,9	1.056	5,2
100.000 120.000	1.672	0,4	49.748.254	52.672.334	2.924.079	5,4	1.749	5,9
más de 120.000	2.614	0,7	159.294.069	177.100.894	17.806.825	32,8	6.812	11,2
Guztira	401.036	100	1.509.812.269	1.564.053.657	54.241.388	100	135	3,6

Proposatzen diren neurrien ondorioz, batz bestea aitorpen bakoitzak 135 euro gehiago ordainduko ditu; hau da, %3,6 gehiago.

Baina eragin osoa progresiboa da argi eta garbi. Lehen bi tarteentzat (20.000 euro baino gutxiagoko oinarri ezargarriak) ordaindu behar duten kuota berria jatorrizkoa baino txikiagoa da. Zenbateko horretatik gora kontrakoa gertatzen da: kuota berria jatorrizkoa baino handiagoa da; eta gainera, handitzen doa bai kopuruz eta bai proportzionalki tartetean gora goazen neurrian. Horrela, 120.000 euroko oinarri ezargarría baino handiagoa duten 2.614 aitorpenek, batz bestea 6.812 euro gehiago ordainduko dute (+%11,2). Hau da, aitorpenen %0,7ak proposatutako neurrien eraginaren %32,8 bere gain hartzen du.

Giniren indizea

Giniren indizeak aldagaia baten (soldata, errenta ...) kontzentrazio-maila neurtzen du. Sarreren desberdintasuna neurtzeko erabiltzen da, eta esaten digu populazioaren zati batek diru-sarreren zer zati metatzen duen.

Giniren indizea 0 eta 1 artean egoten da, non 0k berdintasun perfektua adierazten duen (denek diru-sarrera berdina dituzte) eta 1ek desberdintasun perfektua (pertsona batek du diru-sarrera guztia eta beste guztiek ez dute batere).

Aztertutako neurriei dagokionez, PFEZren Giniren Indizea kalkulatu da honako kontzeptu hauentzat:



- Errenta zergaren aurretik
- Errenta erabilgarria zergaren ondoren jatorrizko kuotarekin; hau da, errenta zerga aurretik ken jatorrizko kuota.
- Errenta erabilgarria zergaren ondoren kuota berriarekin; hau da, errenta zerga aurretik ken kuota berria.

Lortu diren emaitzak ondorengoak dira:

Giniren indizea	
Errenta zergaren aurretik	0,35910
Errenta erabilgarria - jatorrizko kuota	0,32041
Errenta erabilgarria - kuota berria	0,31675

Datu horiek kontuan hartuta zera esan daiteke:

- Errenta Zerga birbanatzailea da; errenten kontzentrazioa berdina da (0tik hurbilago dago) zergaren ondoren.
- Proposatutako neurriek Errenta Zerga birbanatzaileagoa egiten dute; izan ere, Giniren indizearen balioa txikiagoa da.

3.2. OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGA

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan proposatzen diren neurrien eragina aurreikusterako orduan arazo handi bat dugu: egitate ezgarriak aleatoriotasun handiarekin gertatzen dira.

Beraz, erabaki da kalkuluak egiteko oinarri gisa azken bi urteetako datu baseak erabiltzea, eta baita aurten txosten hau egiterako momentura arte aurkeztutako aitorpenak (horiek 12 hilabetera eramanda); eta horien gainean batz besteko aritmetiko bat aplikatzea

Horrela, zerga-bilketan duen eragin osoa 11.355.151 euroko diru-sarrera gehiago da.



4. FORU ARAU PROIEKTUAK DAKARTZAN ALDAKETEN GENERO ERAGINA

4.1. Txostenaren oinarriak eta helburua

Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, foru administrazioei dagokie foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera. Era berean, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezarritakoaren arabera, izaera orokorreko xedapenen aurreproiektuak egiteko prozeduran, bertan ezarritako neurrien genero inpaktuari buruzko txosten bat bildu beharko da eranskin gisa.

4.2. Generoaren ikuspegitik kontuan hartzekoak diren neurriak identifikatzea

Dagokigun Foru Arau Proiektuak zerga-araubidean zenbait aldaketa ekarriko ditu. Zentzu horretan, zenbait neurri identifikatu ahal izan dira pertsonengan, emakume nahiz gizonengan, eragin zuzena dutenak. Zehazki, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagozkionak. Horregatik, genero berdintasunaren printzipioa integratzeko KONTUAN HARTU BEHARREKOA da.

Dena den, aipatu beharra dago, bi neurri mota bereizi daitezkeela. Alde batetik, deflaktazioa neurri unibertsal bat da, hau da, ez dago talde zehatz bati bideratua eta bere helburua zergadun ororen erosketa-ahalmena eta zerga-zama maila mantentzea da. Ez da, beraz, aldez aurretik genero eragin negatiborik aurreikusten, neurri tekniko huts baten aurrean baikaude, zerga inflazioaren aldatetara egokituko duena.

Beste alde batetik, zergaren ekitatea lortzeko bidean hartzen diren neurriak talde jakin batzuei zuzenduta daude. Handiagoa edo txikiagoa izan emakumearen presentzia eta bere pisu erlatiboa talde horien barruan, eragina ezberdina izango da batzuen edo besteengan.

4.3. Genero inpaktuaren balorazioa

Araudian emango diren aldaketen genero eragina kalkulatzeko orduan, 2009. urteko PFEZ aitorpenen datuak (2010ean aurkeztutakoak) erabili dira, jatorrizko kuota likidoaren eta proposatutako neurrien ondoren sortuko litzatekeen kuota likidoa konparatu ditugularik.

Kalkuluetarako aplikatutako metodologiari dagokionez, garrantzitsua da aipatzea nola egin den datuen sexukako banaketa. Honela, familia unitate barruan ez dauden



subjektu pasiboen aitortpenak, banakakoak eta guraso bakarreko baterako aitortpenak aitortzailearen sexupean erregistratu ditugu. Ezkontide biko baterako aitortpenetan, aldiz, kuota likido osoa aitortzaile nagusiari egotzi zaio

Aurrekoa argitu eta gero, lortutako emaitzak hauexek dira:

Aitortzailearen sexuaren arabera	Aitortpen kopurua	Ordaintzeko kuota (eurotan)				
		Jatorrizko kuota	Kuota berria	Diferentzia	Diferentzia aitortpeneko	Diferentzia %
Emakumezkoa	167.386	493.669.172	510.483.858	16.814.686	100	3,4
Gizonezkoa	233.649	1.016.143.097	1.053.569.799	37.426.702	160	3,7
Guztira	401.036	1.509.812.269	1.564.053.657	54.241.388	135	3,6

- Batz bestea aitortpen bakoitzeko ordaintzeko kuota 135 eurotan igotzen da (+%3,6); emakumeen kasuan zenbateko hori 100 euroko da (+%3,4); eta gizonezkoetan 160 eurokoa (+%3,7). Hau da, emakumezkoetan eragina nabarmen txikiagoa da (100 euro, gizonezkoen 160 euro ondoan), gehienbat errenta txikiagoak dituztelako.

Datuen banaketa portzentuala honakoa da:

Aitortzailearen sexuaren arabera	Aitortpen kopurua	Ordaintzeko kuota (eurotan)		
		Jatorrizkoa	Berria	Diferentzia
Emakumezkoa	41,7	32,7	32,6	31,0
Gizonezkoa	58,3	67,3	67,4	69,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

- Aitortzaile kopuruari dagokionez, gizonezkoak %58,3 dira eta emakumezkoak %41,7.
- Emakumeek jatorrizko kuotaren %32,7 ordaintzen dute eta gizonezkoek %67,3.
- Proposatutako neurriekin emakumezkoak %32,6 ordaintzera pasatzen dira (0,1 puntu gutxiago) eta gizonezkoak %67,4 ordaintzen dute (0,1 puntu gehiago).



- Aurreko koadroan ikus dezakegunez, gizonen zergari egiten dioten ekarpena (kuota likidoari dagokionez) nabarmen handiagoa da. Hori gizonen oinarri ezargarri handiagoek eta PFEZaren izaera progresiboak sortua da. Dena den, proposatutako neurriek ez du aldaketa nabarmenik ekarriko kuota likido osoaren sexukako banaketan, portzentajeak finko mantentzen baitira. Hau dela eta, deflaktazioaren eragina ia neutrotzat jo dugu, emakumezkoen egoera pixka batean hobetuz.

Donostia, 2011ko urriaren 27a

AZTERLANEN ATALEKO BURUA

O.I.

ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN ZERBITZUBURUA